



PASAI ANTOKO JAI BATZORDEAREN OHARRA:

Lehenik eta behin pasaitar eta bisitariei eskerrak eman nahi dizkiegu Antxoko Jai Batzordeak antolaturiko lehen Antxoberfesten parte hartzeagatik, eta bereziki antolakuntzan, muntaian, animazioan, garbiketan, sukaldean, txartelak saltzen, txandak egiten... eskuzabaltasunez aritu ziren 150 lagun baino gehiagori. Ez da erraza izan, baina merezi izan du. Jai Batzordeak jaiak antolatzeke modu berri bati ekin dio aurten, eta Antxoberfest horren isla izan da, auzolanean, herritarrek herritarrentzat eginiko festa izan delako. Egun bizi dugun egoera ekonomiko zailean San Ferminetarako laguntza lortu dugu, eta ez edonola gainera; elkarlanean eta festa giroan.

Larunbat gauean, ordea, harro egoteko moduko ekimen hau burutzen ari zen gunean, karpan hain zuzen ere, festa giro horrekin bateraezina den eraso bat izan zen. Jakitun gara jai gune guztietan egon daitekeela edaten ez dakien norbait, istiluak sortzeko prest, eta zaila da antolatzailen aldetik horrelakoak erabat ekiditea.

Horrelako gertaerak errepikatzea nahi ez dugunez, gauzak garbi uzteko garaia heldu da. Jai Batzordea osatzen dugunok hau adierazi nahi diogu entzun nahi duenari:

- Edonori gerta dakioke ausaz istilu baten erdian aurkitzea bere burua, baina pertsona horien jarreran datza arazoak.
- Edozein aitzakiapean indarkeriara jotzeko joera elkarbizitzaren aurkako eraso zuzena da.
- Elkarbizitza erasotzen bada, denok sentitzen gara erasotuak.
- Horrelako jarrerak errespetu falta ikaragarria dira, erasotuarentzat noski, baina baita inguruko guztientzat ere. Kasu honetan, Garagardo Festan lanean ala festaz gozatzen ari ziren guztientzat.
- Baina oker dago jarrera horiek elkarbizitzarekin bateragarriak direla pentsatzen duena, oso oker.
- Zuek zarete zuen ekintzen arduradunak eta ez kontatu gurekin horiek zuzitzeko. Bide horretan bakarrik egongo zarete.
- Azkenik, gure herriko jai eta festetan maiz errepikatzen diren istilu eta gertakarien aurrean, gazteei, helduei, gurasoei, eta antxotarrei orokorrean, arduraz jokatzeko eskatu nahi dizuegu.

Pasai Antxoko Jai Batzordea.